

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2023-URTARRILA-446.ZENBAKIA

KARKARA



ZORIONE MENDEZ

ARTE
KOLEKTIBORANTZ

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristaleriaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.



ARDORA
 arraindegia

Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52
 ardoraarraindegia@yahoo.com
 ORIO

arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terniza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

azkue
 auto

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

fontana iturgintza
 iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoa
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoek instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

Joseba AROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN

KAÏOA

kaioa_denda
 www.kaioa.es





KARKARA 446

2023-URTARRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Orio haurtzaroko begietatik
- 6 **Hitz tantak** Onintza Lete Arrieta
Ana Arruti
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Angula arrantza debekatuta
- 10 **Gutunak**
- 13 **Herrian galdezka**
Erosketak non egiteko ohitura duzu?
- 14 **Elkarrizketa** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Zorione Mendez: "Pribilegiatua naiz, gustatzen zaidana egitetik bizi naizelako"
- 21 **Moila bazterretik** Aritz Pardina
Aspertzearen onurak
- 22 **Akuilua hartuta** Orioko presoen eskubideen aldeko mugimendua
Etixerako bidean, oztoporik ez!
- 23 **Nire honetan** Onintza Lete Arrieta
Zalantzak
- 25 **Ikasleak idazle** Orioko Herri Ikastola
- 26 **Klik!** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Garai bateko oroitzapenak
- 32 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
Orioko mugarriak: Aia eta Orioren artekoak (I)
- 36 **Erreportajea** Aitziber Arzallus
Urangaren azken txingarrak
- 40 **Iritzia** Xabier Lizaso
Aldapeko Rosaren testamentua Orioko herriari
- 41 **Euskara** Miriam Garcia
Beharrezkoa da Euskaraldia
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Ganix Sukia

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Aitziber Arzallus
Onintza Lete Arrieta

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Mikel Azkue

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Aritz Pardina
Iñaki Iturain
Xabier Lizaso
Miriam Garcia
Ganix Sukia

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAIKO
UDALA



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Katu
Horia
Aibaitaritzza klinika

ESTROPALARIZ, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**



GARMENDIA
Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

Kepa Loidi
harategia-urdaitegia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 · Orio · © 943-83 25 65
www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com

Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44




KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



LASTER
DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa




garraioak

ibilbideak



kamarak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Orio haurtzaroko begietatik



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Denboran atzera begiratzen dudanean, gaur egungotik desberdina den herria datorkit gogora; ez hobea, ezta okerragoa ere, desberdina: txikiagoa. Bi kale ditut gogoan: Goiko Kalea eta Beheko Kalea. Azken horrek, gainera, kale bakarra zuen, Eusko Gudarien kalea, bi noranzko zituena. Arrantzale kalea ere bazen, baina, garai hartan, ambulatortik Balea kalearen bidegurutzeraino iristen zen, Kutxa pareraino, alegia. Eta zer zegoen, bada hortik aurrera? Palotak, baratzeak eta eskabetxeria.

Gogoan dut, orduan, Ikastolako laborategia eta plastika eta teknologia gelak gaur egun KTA eraikinean kokatuta zeudela, eta eskola orduetan horietara joatea tokatzen zitzaigunean, baratzeetatik barrena joaten ginela. Ikastola aurrean, berriz, gaur egun *plazoleta* dagoen tokian, harriz, lokatzez eta hondarrez estalitako orubea zegoen, eta hantxe ibiltzen ginen jolasean: batzuk arbustu artean txabolak egiten eta beste asko hondarretan txingoka, laukitxoetan destornilladore txikia sartu nahian. Gaur egun, pentsaezina izango litzateke.

Moilako paisaia ere desberdina zen, baporez beteta egoten zen garai hartan, eta ostiraletan arrantzaleak marearekin sartzen zirenean, irudi ederra uzten zuten. Gogoan ditut arrantzaleak ontzitik moilara salto egiten eta saregileak korrikapustuko konponketa egiten; baita uda garaian marinelek nola eramaten zuten esku banatan isatsetik helduta hegaluzea etxera. Bizi-bizia zen moilako giroa.

Beste hainbat bitxikeria ere oroitzen ditut. Etxeetara iristen zen ura oraindik edangarria ez zenean, esaterako, iturrietara ur bila joateko ohitura handia genuen oriotarrok, eta auzo bakoitzak bazuen bere iturria. Gaur egun, aipatutako iturri gehienek lehengo toki berean jarraitzen dute, baina aspaldi desagertu ziren horien bueltan sortzen ziren ilarak eta hizketaldiak.

Etxeak eraiki eta azpiegiturak hobetu diren heinean, herria aldatu egin da, eta pixkanaka lausotu egin da gure haurtzaroaren eszenatoki izan zen Orio, eta herri eroso eta modernoagoari eman dio bidea. Nik neuk ez dakit zerk eragin duen azken urteetako bilakaera demografikoa, eta seguru nago adituek faktore asko nabarmenduko lituzketela: autobideko sarrera-irteera, hondartzako eremu berritua, eta abar. Baina iruditzen zait Arrantzale kalearen bueltan egindako etxeak, Erriberak bezala ezagunak direnak, inflexio puntu garrantzitsua izan zirela herriarentzat. Ez 1990eko hamarkadaren bigarren erdian egin zituzten lehen etxe berri horietara kanpoko jende asko etorri zelako bizitzera, Arrantzale kalea sortu zenean muga ikusezin bat zeharkatu zelako baizik. Izan ere, sentipena dut ordutik etenik gabe hazi eta eraldatu dela herria. ■■■

**"PIXKANAKA LAUSOTU
EGIN DA GURE
HAURTZAROAREN
ESZENATOKI IZAN ZEN
ORIO"**

Ana Arruti

TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

Ana Arruti (Orio, 1964) txikitatik izan da arraunzalea. Gurasoengandik datorkio afizioa, eta arraun denboraldian senarra eta biak alde batetik bestera ibiltzen dira Orio Arraunketa Elkarteko taldeak animatzen. Zer esanik ez Nadeth Agirre alaba patroï hasi zenetik. Aurtengo denboraldia bikaina izan da alabarentzat, eta baita amarentzat ere, banderen bedeinkazioko amandrea izan delako bera.

Kontxa irabazi du aurten Orio Arraunketa Elkarteko nesken traineruak, eta beraz, banderak bedeinkatu dira. Ekitaldiko amandrea zeu izan zara. Berezia izango da zu bezalako arraunzale batentzat, ezta?

Poz ikaragarria hartu nuen. Presidentea [Iosu Esnaola] eta Maider [Arrillaga] etorri zitzaizkidan Nadethekin, eta esan zidaten ni izango nintzela amandrea, eta *jesukristoren* sorpresa hartu nuen. Oso eskertuta nago zuzendaritzari, bai egiten ari diren lanagatik, bai niri eman didatelako amandrea izateko aukera.

Inoiz pentsatuko al zenuen zu izendatuko zintuztela?

Ez. Nire ingurukoren bat izan zitekeela ikusten nuen, uste dudalako edozein arraunlariren amak izan behar lukeela amabitxi, amok beti hor gaudelako. Ni izan naiz, baina beste edozein arraunlariren ama izan balitz ere ikaragarri gustura egongo nintzatekeen.

Zeure alabak ere jarri zuen sareetan, zu zinela ama guztien ordezkari.

Hori da. Iruditzen zait ama denok merezi dugula hori. Niretzat poz handia izan zen, eta Nadethentzat ere berezia izan zen. Oso-oso ondo pasatu genuen eguna, eguraldi ederra tokatu zen eta denok joan ginen klubera bazkaritara. Beste urteetan ere beti joan izan naiz bazkari horretara.

Banderen bedeinkapenaren egunean norbait bereziki izan zenuen gogoan?

Gurasoak. Hilda daude, eta bizi izan balira pozarren egongo ziratekeen. Oso arraunzaleak ziren. Umetan oinez joaten ginen gurasoekin Kontxako estropadak ikustera, Oriotik Igeldora. Estropadak ikusi, bazkaldu, eta etxera. Udako

momentu gorena izaten zen hura guretzat, sekulako eguna.

Txikitatik zara zalea, beraz?

Bai, txiki-txikitatik joaten ginen estropada guztietara. Alaba hasi zenetik, berriz, alerik hutsik egin gabe, estropada guztietara joan gara. 12-13 urterekin hasi zen, kasualitatez, klubean. Patroïa falta zutela eta deitu zioten, eta ordutik ez da gelditu ere egin.

Zeuek hain arraunzaleak izanda, polita izango da alaba hor goian ikustea, ezta?

Bai, oso polita da. Bi alaba ditugu, eta horretan oso desberdinak dira: zaharrena ez da batere zalea; Kontxara bakarrik etortzen da. Nadethekin, berriz, egun osoan arraunaz hitz egiten dugu etxean, beste gairik ez dugu.

Alabaren atzetik urte asko daramatzazue.

Bai. Bere ametsa Kontxa irabaztea zen, eta askotan galdetzen zidan ea inoiz irabaziko ote zuen, eta nik zera esaten nion: 'zuk bai, irabaziko duzu, eta segi lanean'. Beti esaten zidan ez zuela hil nahi Kontxa irabazi gabe, eta nik beti baietz esaten nion, nahiz eta batzuetan pentsatu ezinezkoa zela irabaztea.

Azken urteak oso gozoak ari dira izaten, baina urte gogorak ere izan dira...

Bai. Urte mordoan aritu ziren segi eta segi, hamar bat edo bai, Kontxa irabazi arte. Gero bigarrena etorri zen, eta aurten, hirugarrena. Bigarren gelditzen zirenean beti triste etortzen zen etxera Nadeth, eta ama horretarako dago, animatzeko. Aita eta bikotea ere bai, baina ama ama da.

Kamiseta horia soinean ikusiko zaitugu hemendik aurrera ere estropadaz estropada?

Bai, uda guztiko gure planak horiek izaten dira. Batelak hasten direnetik joaten gara, nahiz Nadeth ez aritu bateletan. Senarrari gustatu egiten zaio, eta desiratzen egoten gara udaberria noiz iritsiko. Jada ari gara Galiziako asteburuarekin pentsatzen, han jokatzeko baita hemendik kanpora aurreneko estropada. Hotela eta gauzak hartu behar izaten dira, eta badakizu... ■■■



Angula arrantza debekatuta

TESTUA ETA ARGAZKIA: AIORA
LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Europako Batasunak debekatu egingo du angularen arrantza ez profesionala, aisialdikoa, espeziea berreskuratzeko neurri gisa. Hain zuzen, hori da Bizkaian eta Gipuzkoan egiten dena gaur egun. Angulazaleek gogoratu dute, ordea, "mendeetan Euskal Herrian bizirik iraun duen ohitura" izan dela, eta ziur daude urtean arrantzatzen dituzten 800 kiloak debekatzeak "eragin txikia" izango duela angularen eta aingiraren berreskuratzean. Izan ere, Hego Euskal Herrian arrantzatzen dena Europako harrapaketen %0,2 da. Hala, Euskadiko Anguleroen Elkarteak debekuari irtenbidea emateko borondatea eta sektorea profesionalizatzeko diseinatu duten plana garatzen uzteko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, eskumen hori harena baita. ■■■





Sanikolasak, herritik sortutako festa eredugarriak

ORIOKO UDALA

ORIO

Bi urteko etenaldiaren ondoren, gogotsu hartu ditu herriak aurtengo sanikolasak. Cristina Atorrasagastiri egindako omenaldiarekin hasi genituen jaiak, jendez betetako herriko plazan, giro paregabean. Eta egunez egun, programa osorik bete da, parte hartze zabalarekin.

Haur eta gaztetxoek jolasak eta kirol jarduerak egiteko aukera izan dute, eta herriko gazteek giro ederra jarri dute Herriko Plazan, txosnako jardunaren bueltan.

Jubilatuentzako hamaiketakoaz ere ederki gozatu genuen, eta herriko musika taldeek, beste hainbat talderekin batera, plaza erabat bete zuten lau egunetan, adin guztietako herritarrek dantzaz jarriz.

Pozik ospatu ditugu festak, eta benetan eredugarria izan da guztiok erakutsitako jarrera, elkarrekiko errespetatua oinarri hartuta. Festa giroan ere, herria garbi mantendu daitekeela erakutsi duzue.

"UDALAK ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE BOLUNTARIO GISA LAN EGIN DUTEN GUZTIEI"

Jai Batzordean eta festetan parte hartu duten herritarrek eta eragileek egindako lanari esker, herritik sortutako jaiak ospatu ditugu aurtengoan. Eta horregatik, udalak eskerrak eman nahi dizkie boluntario gisa lan egin duten guztiei; zuei esker, guztiok disfrutatu dugu. Eta hori izan da, hain zuzen, aurtengo sanikolasen arrakasta.

Astearte gauean izandako erasoaren aurrean, herritarrek erantzun azkar eta bateratua eman zuten, herrian halako jazarpeneke lekurik ez dutela argi utziz eta festek askeak eta gozamenerako izan behar dutela erakutsiz. Udalak ere bat egin zuen eraso gaitzesteko elkarretaratzearekin.

Caritasen eltzetsu solidarioak

UNAI MANTEROLA

ORIOKO PARROKIAKO CARITAS
ORIO

Bigarren urtez, Arkupe elkarteak eltzetsu solidarioak jarri ditu dendetan eta tabernetan. Hor biltzen den diruarekin Orioko Parrokiako Caritasen janaria erosten du Arkupeko dendetan, urtean zehar. Orain urtebete, esaterako, 1.200 euro inguru bildu ziren. Hori, urteko lau igandetan mezetan egiten den diru bilketa berezia, hainbat herritarren eskupekoak eta Orioko Udalararen 6.000 euroko hitzarmen laguntza izaten dira Caritasen diru iturria. Jendeak izaten du nolabaiteko errezeloa,



Caritasen eltzetsua. A.L.S.

Caritasek benetan behar duen jendeari laguntzen ote dion edo ez. Laguntzen %100 udaleko Gizarte Zerbitzuekin hitz eginda eta adostuta ematen dira. Pozgarria da, Gizarte Zerbitzuetan ditugun langileekin dugun komunikazioa eta elkarlana. Aurrerantzean ere jarrai dezagula denok oriotarren bizitza duinagoa eta errazagoa bihurtzen.

Zaharren Babeslekuko batzarra

ZAHARREN BABESLEKUA

ORIO

Urtarrilaren 11n, Zaharren Babeslekuko kideok urteko batzarra egingo dugu, Kultur Etxean, 16:30ean hasita. Lehenik eta behin, elkarteako presidentek aurkezpen txoa egingo du, eta ondoren, hainbat gai jorratuko ditugu. 2022ko martxoaren 2an egindako azken

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Batzar Nagusiaren akta irakurri eta, egokia bada, onartu egingo da. Horrez gain, ekitaldi ekonomikoaren itxiera egingo da, eta 2022. urteko balantzea aurkeztu. 2022ko jardueren memoria aurkeztuko da, eta zuzendaritzak proposamena egingo du, urteko kuota 10 euroa igotzeko. Bukaeran, eskarien eta galderen tartea ere zabalduko da. Batzarrean zehar, Anuska Esnal alkateak ere hartuko du hitza.

Bestalde, Zaharren Babeslekuko bazkideei gogorarazten diegu urteko kuota kobratuko dugula urtarillaren 16tik 19ra bitartean (biak barne). Kuota arratsaldez ordaindu beharko da, 16:30etik 18:30era, astelehenetik ostegunera.

1.- 2022ko abenduaren 31 baino lehen 80 urte bete dituzten bazkideei ez zaie kuotarik kobratuko.

2.- Beste bazkide guztiek kuota ordaindu beharko dute.

Kuota babeslekuan bertan ordaindu behar da eta, ordaintzerakoan, bazkide-agiria aurkeztu behar da.

Kuota 10 eurokoa izango da.

Zaindu dezagun herria, guztiona baita

ORIOKO UDALA

ORIO

Muntoko kirol eremuko bost zuhaitz moztuta azaldu dira azken hilabeteetan. Udalak atsekabe handiz jaso du gertatutakoa, eta herritarrei arduraz jokatzeko eskatu



Zuhaitzak moztuta. ORIOKO UDALA

nahi die; herria guztiona baita, eta guztiok egiten dugu herria.

Moztutako bost zuhaitzak ederrak ziren.

Herritarrengandik jasotako eskaera bati erantzunez landatu ziren han, itzala eman zezaten. Gisa horretako zuhaitzek urteak behar izaten dituzte itzala sortzeko, eta izandako galera ez da berehalakoa konponduko. Horregatik, oriotarrei mezua helarazi nahi die udalak, erantzukizunez jokatzeko. Herriko altzariei, lorategiei, eraikinei... eragindako kalteek guztiongan dute eragina, eta herria zaintzea guztion ardura da. ■■■

"MUNTOKO KIROL EREMUKO BOST ZUHAITZ MOZTUTA AZALDU DIRA AZKEN HILABETEAN"

JAIOBERRIAK

- **Emir Tayar Uria.** Orion, azaroaren 16an.
- **Amina Ziani Essarroukh.** Orion, azaroaren 24an.
- **Navah Guerrero Ibañez.** Orion, azaroaren 30ean.
- **Leo Cotado Arrondo.** Orion, abenduaren 3an.
- **Luar Azkue Portalo.** Orion, abenduaren 3an.
- **Janeth Arruti Ibargoien.** Orion, abenduaren 3an.
- **Azuz Ali Abdelmalek.** Orion, abenduaren 4an.
- **Nora Murillo Lizaso.** Orion, abenduaren 10ean.


HILDAKOAK

- **Jabier Uranga Izeta.** Orion, azaroaren 24an. 91 urte.
- **Rosa Maria Arruti Mujika.** Orion, azaroaren 26an. 70 urte.
- **Gabriel Ruano Soto.** Orion, abenduaren 5ean. 87 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.


Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío

PUBLIZITATEA



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

Lizaso
Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

OINARRI **PODOLOGIA ZENTROA**



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com



MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29

PAKO IMAZ



pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

MENDIZABAL
AROTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...



HARATEGIA
PATXI
OLIDEN
URDATEGIA

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10



Portu
Erreteta - Jateetxea

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus

IBER glass 

Kristalen konponketa eta aldaketa
Eguzki lamina ilunak
Errotulazioa
Seguruekin kontzertatuta
Txanda eskatzeko: 689 34 11 01



LAIARAN

Estropalari, 12



LAIARAN

Kuadrilenzako
kamisetak, zapiak.....

Erosketak non egiteko ohitura duzu?



JAIONE SOLABERRIETA

"Guk erosketak herrian egiteko ohitura handia dugu. Eguneroko erosketak egitea gustatzen zaigu, elikagai freskoak batez ere, egunean egunekoa erostea. Arraina, haragia, fruta, ogia... Horiek beti herrian erosten ditugu, betiko dendetara joanda. Horrez gain, astean behin Zarautzera joateko ohitura ere badugu, bestelako erosketak egitera. Gabonetako erosketak ere horrela egin ditugu, janaria nagusiki herrian erosi dugu, eta opariak-eta, denetarik pixkat bat. Batzuk erostera merkataritza gune handietara joan gara, eta beste erosketak batzuk Internetez ere egin ditugu. Izan ere, seme-alabek zer nahi duten esaten digutenean, ezin da dena herrian aurkitu, eta horrelakoetan kanpora jotzen dugu".



ARAME DIOT

"Gu erosketak egitera, normalean, merkataritza gune handietara joaten gara. Hilabetearen hasieran hilabete osorako erosketak handia egiten dugu, eta oinarritzko zenbait produktu kantitate handian erosten ditugu, Senegalen halaxe egiteko ohitura dago familietan eta. Dena dela, beti falta izaten da zerbait etxean, eta erosketak txiki horiek herriko dendetan egiten ditugu. Gabonetan, Gabon gaua eta Urte Zaharra etxean ospatu ditugu, eta afari horietarako normalean bezala antolatu gara. Opariak erostera, aldiz, herritik hurbil dagoen merkataritza gune handi batera joan gara. Internetez erosketak egiteko ohitura ere badugu, eta hemen aurkitzen ez duguna Senegaldik bidaltzen digute".



JON ALKAIN

"Egunerokoan behar izaten ditugunak, elikagaiak eta etxerako bestelako produktuak, herriko dendetan erosten ditugu, eta arraultzak eta beste zenbait gauza baserrietik ekartzen ditugu. Gabon gauerako edo urtean zehar egin dezakegun beste jatordu bereziren baterako itsaskiak erosi behar baditugu, Aginagara joan ohi gara; hara joan izan gara beti, eta halaxe egiten jarraitzen dugu. Arropari dagokionez, ahal dudana neuk egiten dut, eta, bestela, saiatzen naiz herrian bertan erosten. Oinetakoak, berriz, probatuta erostea gustatzen zait, hemen ez bada, Zarautzen. Ez dut esango merkataritza gune handi batera sekula joan ez naizenik, baina ahal dudanean saiatzen naiz herriko merkatariei eta merkataritxikiei laguntzen".

"Pribilegiatua naiz, gustatzen zaidana egitetik bizi naizelako"

ZORIONE MENDEZ SORTZAILEA

Zorione Mendezek (Orio, 1988) urteak daramatza artista gisa azoka, tailer, dinamika, hitzaldi eta erakusketetan parte hartzen, baita artea eta sormena uztartzen dituen beste hainbat proiektutan murgiltzen ere. Artea estetikatik harago doala iritzen dio; mezuak du garrantzia beretzat.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

D A izeneko proiektuan murgilduta zaude egun. Zertan datza? Orain dela bost urte bidaia bat egin nuen European eta Asian barrena, eta proiektu kolektibo bat egitea bururatu zitzaidan orduan. Liburu txiki bat sortu nahi nuen, neure buruarentzat opari bat, eta familiari eta lagunei proposatu nien parte hartzea, baita bidaian zehar ezagututako hainbat pertsonari ere. Interesgarria iruditu zitzaidan pentsamendu, kultura eta jatorri desberdinetako jendearen sorkuntzak bilduz proiektua osatzea; ahal zen anitzena. Hasierako ideia hura zertxobait aldatu da, Usurbilgo Udalak dirulaguntza bat eman didalako proiektua garatzeko. Gaur egun, bi atal ditu: batetik, hogeita bat sorkuntza bilduko dituen liburua, eta, bestetik, fanzinea. Zergatik hogeita bat? Bada, hogeita bat lurralde zeharkatu genituelako. Liburua fanzinea baino pertsonalagoa izango da; bertan bilduko ditut zerbait berezia sentiarazten didaten lanak, eta fanzinean bilduko ditut gainerakoak. Horrek ez du esan nahi fanzinean argitaratuko ditudan lanak garrantzia gutxiago dutenik, ezta gutxiagorik ere, baina proiektuaren

hasierako esentzia mantendu nahi izan dut, eta liburua neure buruari egiten diodan oparia denez, bertan niretzat esanahi berezia duten lanak jasotzea erabaki dut. Formatu txikiko liburu bat izango da; tapa beltza izango du, eta oihal batekin bilduta egongo da. Objektu artistikoa izango da. Jimena Aljeriz uruguiarrak egingo du maketazioa. Liburuaren 100 ale argitaratuko dira, eta fanzinearen beste 100. Proiektuan parte hartu duten guztiei oparituko diet ale bat.

Bidaian ezagutu zenuen jendearen ekarpenak ere bilduko ditu lanak, beraz?

Ez dira asko, komunikazioa ez zelako erraza izan bidaian zehar, baina batzuk badaude, bai. Pertsona horien jatorrizko hizkuntzan idatzitako testuak dira. Originala dagoen bezala mantenduko dut, akats eta guzti, eta euskarazko itzulpena aurkeztuko dut alboan.

Zer motatako sorkuntzak bilduko dituzu proiektuan?

Lau gai jarri ditut aukeran, eta horietako bat aukeratu dute parte hartzaileek: ametsa, sekretua, fantasia erotiko-sexuala eta bizipena. Gai horietakoren bat ardatz hartu, eta nahi duen arte diziplinan jorratu behar du bakoitzak: collagea, argazkia, marrazkia, testua...





Zorione Mendez Bulgarian auto-stop egiten. ZORIONE MENDEZ



Mongoliako yurtak. ZORIONE MENDEZ

Liburuaz eta fanzineaz gain, aipatutako gai bakoitzaren inguruko koadro bana ere sortu nahi dut. Gai bakoitzetik lan bat aukeratuko dut, eta horretan oinarrituta, margolan bat sortuko dut. Dagoeneko, erosi ditut 80 zentimetroko diametroa duten lau lientzo zirkular. Aukeratutako lan horien interpretazioak izango dira koadroak.

Europar eta Asian zehar egindako bidaian sortu zitzaizun proiektu kolektiboa egitearen ideia. Toki eta testuinguru berriek ideia berriak sorrarazi zizkizuten, akaso?

Sormen handia daukat eta ideia asko izaten ditut, baina kostatu egiten zait buruan ditudan ideia horiek gorpuztea. Sormen aldetik ez dut behar kanpora ateratzerik, baina uste dut testuingurua aldatzeak naturalki ideia berriak sorrarazten dituela, egunerokoa guztiz aldatzen delako:

paisaia, kultura, jendea... Gogoan dut DA proiektua sortzeko beharra Laosen sentitu nuela. Bidaia laugarren hilabetea zen. Bizikletan dezente ibiltzen ginen, eta turismo guneetatik urruti genbiltzan. Oso inguru harritsua zen, nahiko basatia, eta hezetasuna handia zegoen. Bidaian ezagututako lurraldeen arteko gustukoena dut Laos, baina laugarren hilabete horretan hasi nintzen etxeokak eta lagunak faltan botatzen. Haien gertutasuna sentitu nahi nuen, eta orduan egin nuen deialdia. Etxekoak gertu sentitzeko oparitxoak egin nahi nion neure buruari. Horregatik da niretzat garrantzitsua liburuan nik aukeratutako lan jakin batzuk biltzea, nahiz eta jaso ditudan lanen artean hobeak badauden.

Bidaia horrek markatu egin zintuela esango zenuke?

Nerabezaroan bihozkada bat izan nuen Mongoliarekin, eta duela zazpi urte nire bidelagun Beñati nirekin Mongoliara etorri nahi zuen galdetu nion. Eltzeitsu bat jarri genuen eta dirua aurrezten hasi ginen.

Mongoliara hegaldia oso garestia zenez, Thailandian hasi genuen bidaia martxoaren 8an, baina helburu argia genuen, Mongolian egon nahi genuen ekainean, garai horretan Naadam festa egiten delako han, Mongolian urtean zehar egiten duten festa bakarra.

Bidaian zehar ohiko turismo eredutik aldentzen saiatu ginen. Dena dela, ez ginen hasieratik horrela hasi; hasieran, ostatueta lo egiten genuen, eta garagardoak-eta edaten genituen. Segituan nazkatu ginen, ordea, bizimodu horretaz. Horregatik, Kanbodian, bigarren hilabetean, hasi ginen kalean lo egiten: erretzeari utzi genion, eta oso diru gutxirekin moldatzen hasi ginen. Gure eguneroko bizitzan balioan jartzen ez ditugun gauza txikiei garrantzia ematen hasi ginen: erreka bat topatzen genuenean, bertan garbitzen genituen gorpuzta eta arropak, eta

bertan egoten ginen, lasai, kantatzen, idazten, orrazten. Bizitza erritmoa lasaitu egin zen, eta egunean-egunean bizi ginen.

Beldurrik ez al zenuten sentitzen kalean lo egitean?

Une zailak pasatu genituen, bai, eta nik jarrera matxistak ere jasan nituen. Laosen, gainera, hiru egunetan bi aldiz lapurtu ziguten, eta antsietatea sortu zidan horrek; beldurra ematen zidan kalean lo egiteak.

Hala ere, aitortu behar dut jendea oso irekia dela, batez ere inguru musulmanetan, eta askotan etxean hartzen gintuztela. Nolabaiteko kontraesana ere sentitzen nuen hor, ordea. Izan ere, beti gizonek gonbidatzen gintuzten beren familiaren etxean ostatu hartzera, baina gero, emakumeak izaten ziren lan guztia egin behar izaten zutenak.

DA proiektuaz gain, beste egitasmorik ba al duzu esku artean?



Asian zehar egindako bidaiari, Tayikistango ikasleekin. Z. M.

Bai, hainbat proiektutan murgilduta nabil. Azken asteetan, esaterako, Donostian etxegabekoekin mural kolektibo bat egiteko proiektuan nabil. Abegi harrera etxeak mural bat egitera gonbidatu nau, eta dinamizazio saio batzuk egiten ari naiz horren barruan. Iruñe Izquierdok eta biok diseinatuko dugu murala, eta Abegi etxean bizi direnekin eta Donostiako Emakumeen Etxeko hainbat kideekin batera margotuko dugu, denon artean. Horrez gain, Nerea Urdangarin oriotarrak Makua izeneko proiektu artistiko bat du –bertan nerabe zaurgarriekin lan egiten du– eta nahi du nik ere proiektuan parte hartzea *arte povera* jorratuz, hau da, baliabide gutxiarekin egiten den artea oinarri hartuta. Horrez gain, Orioko Kultur Atelieren marrazketa tailerrak ematen ditut. Orioko eskoletan *Emakumea eta artea* izeneko tailer batzuk eskainiko ditut, baita Euskal Herrian arrisku egoeran dauden animalien inguruko tailerrak ere. Tabakalerako Medialaben ere gidatzen ditut tailerrak, eta beste hainbat herritan ere lotuta ditut. Proiektu asko ditut esku artean.

Aspaldi hasi zenuen ibilbidea, eta urte hauetan guztietan proiektu pila batean parte hartu duzu. Artista gisa eboluziorik sentitzen duzu?

Zer da artista? Aurreko batean lagun batek esan zidan: "Zori, artista bat zara". Hark badaki hitz horrek ez nauela irudikatzen, ez zaizkidalako etiketak gustatzen, hori esanda lanbide bat soilik garena dirudielako. Nire aurpegia ikusi zuenean, esan zidan: "Artista bat zara, gustatzen zaizuna egiten duzulako aspalditik, eta hortik bizimodua ateratzen duzulako". Arrazoi zuela esan nion. Azken batean, sei urte daramatzat Marrak ezizenaren atzean azoka, tailer, dinamizazio saio, hitzaldi eta erakusketak egiten, eta artea eta sormena uztartzen dituzten beste hainbat proiektutan parte hartzen. Artea estetikatik harago doan zerbait bezala ulertzen dut, eta asko gustatzen zait egoera zaurgarrian dauden pertsonekin lan egitea, arteak bete egiten dituelako. Iruditzen zait arte adierazpenari ez zaiola garrantzirik ematen, bai ordea matematikari, baina 34 urtetan matematikako ariketarik ez dut egin behar izan egunerokotasunean. Musikak eta margotzeak, berriz, konexio bereziak sortzen dituzte, eta emozioak sorrarazteko eta helarazteko balio dute, baita gizarteari kritika egiteko ere. Horregatik, uste dut artea oso lagungarria dela haurrekin, adinekoekin, bazterketa egoeran daudenekin edo ezintasunen bat dutenekin lan egiteko. Hori



Zorione Mendez irudi geometriko artean.

esanda, uste dut artista bezala nitasunetik hasi nintzela eta orain kolektiboranzko bidea hartu dudala. Nire lanak eboluzionatu du sistemak nahi ez duen bezala, taldean funtzionatzen; lehiakortasunetik ihes egin eta eredu horizontalak jorratzen.

Nola gogoratzin dituzu zure hastapenak?

Usurbilgo lagun batek animatu ninduen azoka batean parte hartzera, eta hiruzpalau aldiz geratu ginen Gaztetxean elkarrekin margotzeko, eta pinturarekin eta materialarekin disfrutatzen. Musika jartzen genuen nahiko altu, eta dantza eginez margotzen genuen. Orduz geroztik margotzeko harra piztu zitzaidan, baina helburu jakinik gabe. Beharrezkotzat sentitzen dut sormena arlo guztietan: margotzean, abestean, sukaldean... Nire egunerokoan oso presente dago, eta eskerrak; telebista eta albistegiak ikusten jarritz gero, akabo.

Arte Ederrak ikasten hasi zinenean, argi al zenuen hortik bizi nahi zenuela?

Adin horrekin gazteegiak gara zertatik bizi nahi dugun jakiteko; antza, nik gaztetasun hori mantendu egiten dut oraindik. Hemendik bizi naiz eta gustura nago, baina gauzak ikastea eta

probatzea gustatzen zaidanez, batek daki etorkizunean zer egingo dudana. Arlo ugari ditut oraindik esperimintatzeko. Arte Ederrak bukatu ondoren, esaterako, Granadan bizi izan nintzen bederatzi hilabetez, eta Siatsu masajeko eta joskintzako ikasketak egin nituen. Bertatik bueltatu nintzenean, patroigintzan eta modan goi mailako ikasketak egin nituen Donostian. Duela hamazazpi urte parte hartu nuen lehen aldiz azoka batean, Goiko Kalen, eta oihalezko panpinekin, bigarren eskuko arroparekin eta marrazki batzuekin jarri nuen postua. Jendearekin hartu-emanen asko gozatzen dut, baina baita bakar-bakarrik lanean nagoenean ere.

Erraza al da artetik bizitzea?

Pertsona pribilegiatua sentitzen naiz, gustatzen zaidana egiteki bizi naizelako. Nire egoera, ordea, ez da ohikoena, ez ditudalako normalean izaten diren gastu handiak, hipoteka edo haurrak, esaterako. Gainera, iruditzen zait txorakeria dezente dagoela kotxe, furgoneta eta horrelakoen inguruan, baita arropa erosterakoan azken moda jarraitzean ere, jakinda esplotazio egoeran lan egiten dutela arropa horiek egiten dituzten langileak. Momentuz, artearekin eta

sormenarekin lotutako jardueretatik bizi naiz; baratza dugu etxe ondoan, eta erosketa gehiegi ez dugu egiten. Trukea ere lantzen dugu lagunena eta bertako ekoizleen artean. Sare zabala daukat, eta oso pozik nago.

Lanbidea baino gehiago, bizimodua al da?

Bizi nahi dudana bizimodua da. Maiz, ez dut lantzat hartzen, eta askotan esan dezaket oporren sentrazio batean murgilduta bizi naizela. Sormena eguneroko elementua da nire bizitzan, eta bizi garen etxean, tailerrean eta sukaldean bizitza eta mugimendu handia egoten da. Ordu asko pasatzen ditugu bertan, eta lagun batek esaten duen bezala, kaosa eta poza nabari dira. Azken batean, gustuko lekuan, aldaparik ez. Egia da, batzuetan estresa kudeatu behar dudala, gauza asko egin nahi izaten ditudalako, eta gero erdi itota ibiltzen naiz. Guztia ez da arrosa kolorekoa, baina ezin naiteke kexa. Ondo bizi naiz.

Inoiz imajinatu al duzu zeure burua bulego batean edo tailer batean zortzi orduz lanean?

Nire ustez, lan errepikakorrek ez dute pertsona bezala garatzen laguntzen. Onena izango zara

horretan, baina jakintza mugatzen da arlo bakar batetara. Horretarako bizi al gara? Ez al ditugu bizimodu eredu berriak nahi? Ez al dugu disfrutatu eta gauzak probatu nahi? Denok asteburua edo oporrak noiz iritsiko zain egoten gara. Jendea gustura al dago bulego eta tailerretan zortzi orduz beti lan bera eginez? Edo beldur gara gainontzekoek alfertzat hartuko gaituztelako... Hala ere, aitortu behar dut, tarteka, gustatzen zaidala horrelako lan bat egitea, ez pentsatzeko eta ardurarik ez izateko.

34 urte dituzu eta ibilbide luzea aurretik. Erronkarik jarri al diozu zeure buruari?

Urte hasierarekin betiko promesak. Ingurua pixka bat gehiago ezagutu nahi nuke. Pandemia aurretik, hilean behin Gipuzkoako herri bat bisitatzerako joaten ginen, konturatu ginelako Gipuzkoan bizi ginela, baina ez genuela lurraldea ezagutzen. Aldiz, Asiaraino joan ginen, etxetik gertu zer ikusia ere badagoenean. Hori dela eta, ingurua pixka bat gehiago ezagutu nahi nuke. Erronka hitza bera, ordea, ez dut oso positibotzat hartzen, eta antsietate puntua sortzen dit, lehia eta norgehiagoka kutsuak dituelako. Horrekin ez



NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatuta aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karakara.eus e-posta helbidera bidali urtarrilaren 20a baino lehen.

Saria: Errigorako saskia. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Abenduko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkatuta zegoen asmatu behar zen. 9. orrialdean zegoen ezkatuta, eta **Enrike Manzanans, Josune Zabaleta (argazkian), Joxe Mari Lizarralde eta Elisabet Manterola** bazkideak izan dira irabazleak.



Zorione Mendez lurrean eserita, pentsakor.

"SORMEN HANDIA DAUKAT, BAINA KOSTATU EGITEN ZAIT BURUAN DITUDAN IDEIA HORIEK GORPUZTEA"

"NIRE USTEZ, LAN ERREPIKAKORREK EZ DUTE PERTSONA BEZALA GARATZEN LAGUNTZEN"

"AHAL DEN HEINEAN, AUTOGESTIOAN OINARRITUTAKO EREDU BATEAN BIZI NAHIKO NUKE"

dut esan nahi erronkak txarrak direnik, baina uste dut bakarrik azaltzen zaizkidala, gutxien espero dudan unean.

DA proiektuak hainbat diziplina hartzen ditu.

Artearekin lotuta, beste diziplina horiek sakonago lantzea gustatuko litzaizuke?

Buztinzulo Usurbilen dagoen zeramika gunee bat da, eta gustatuko litzaidake berriz ere klaseetara joatea eta bertan ibiltzen diren emakumeekin batera ikastea. Usoa Zumetaren serigrafia tailerrean saltseatzen ere hasi nintzen; asko erakutsi zidan, eta gustatuko litzaidake horretan sakontzea. Naturan interbentzioak ere egin nahi nituzke, arte efimero gisa. Eta, altzariak zahar-berritzea gustatuko litzaidake; gauza zaharrak gustuko ditut, historia dutelako eta egur nobleekin eginda daudelako. Gainera, altzari horiek birziklatuta bigareen bizitza bat ematen zaie, erosi eta bota eredutik aldentuz.

Zer duzu amets?

Gutxirekin konformatzea, eta gustatzen zaidanaz bizitzeko aukera izatea; lasai bizitzea, alegia. Ahal den heinean, autogestioan oinarritutako eredu batean bizi nahiko nuke, eta pixkanaka ari naiz bide horretan urratsak ematen. Ametsak partekatzea ere ondo legoke. ■■■

Aspertzearen onurak



ARITZ PARDINA

Irakasle jendeari entzun ohi diogu urtea irailean hasten dela. Gezurra. Izan ere, askok kontrakoa badio ere, urte hasiera urtarrilarekin lotzen dugu. Hain zuzen ere, Gabonetako egunei belarriak ikusten dizkiegunean, Urtezahar eta Urteberri egunetako prestaketekin batera, esaten dugu urteak berea egin duela. Egun gutxitara nabaritzen dugu denbora zerotik hasten denaren sentsazioa, urte deritzogun zikloaren itxiera.

Irudipen horren eskutik, bestalde, pizten zaizkigu asmo eta nahiak ere. Egun horietan proiektu berriak irudikatzen ditugu, egitasmoak eta bete-nahi ugari. Esango nuke, helburu zerrenda askotan aurkituko genituzkeela gimnasio eta spinning klaseak, hizkuntza berriak, xede pertsonalak eta beste hainbat kontu. Dena dela, azpimarratu nahi dudana da, zerrendatze horietan denbora beteko diguten ekintzak bildu ohi ditugula, eguneroko bizitzaren aringarriak edo, hitz gutxitan, entrenituko gaituzten gauzak.

Zeren, lagunok, ze gaizki daramagun aspertzearen kontu hori. Zalantzarik gabe, gaixotasuntzat dugu, neguan lepoa babesten dugun arreta berberaz jarduten baikara asperraldien aurkako erremedioen bila. Horren adibide garbiena, agian, eskolaz kanpoko ekintzez lepo bizi diren ume eta gaztetxoak ditugu. Azkenaldian, gainera, helduen artean ere ostatu hartu du bizitza egitekoz betetzeko joerak. Ordea, zinez, ez da gogaitzearen aurkako neurri eraginkorrik, zeren eta, egunak pasatzen diren heinean, berria den guztiak errutinaren kolore grisa hartzen du. Hala, egiten dugun orok, azkenean, errepikapenaren ondorioz, aspertzen gaitu.

Horregatik, aspertzearen aldarria egingo dut tarte honetan, anitzak baitira dakartzan onurak. Izan ere, gogaituta egoteak ekintzara bultzatzen gaitu eta, sarritan, asperraldian izaten ditugu ideiarik onenak. Zergatik? Ez, behintzat, egoera horretan gaudela inspirazioa zerutik etortzen zaigulako. Aitzitik, aspertzeak burua martxan jartzen digulako, hots, nahi gabe ere, egokiera horretatik irteteko estrategia anitzak pentsatzen ditugulako. Esaterako, Antzinako Greziako lehen filosofoak dirudunak ziren, aisialdi handiko pertsonak, eta pentsamendua izan zen haien denborapasa. Milurtekoetan atzera eginda, fenomeno berdinen adibide ditugu kobazuloetan aurkitu diren pinturen eta lanabesen egileak, helburu praktikoak betetzeaz gain, itxura zaindua baitute. Horrek erakusten du izaki haiek guk uste baino gehiago aspertzen zirela, eta asperdura ekiditeko moduak aurkitu zituztela.

Jarrai nezake zerrenda egiten, baina uste dut ez dela beharrezkoa. Azpimarratu nahi dudana da badugula asperraldiei zer eskertua. Azken batean, benetan ondo sentiarazten gaituzten gauzak gogaituta gaudenean estalgabetzen ditugu. Era berean, egoera hori aproposa da sormenerako eta hausnarketarako eta, orobat, gaur egungo bizimodu itogarritik ihes egiteko. Hala, abantaila horien guzien baitan osatu dut nire aurtengo egitekoen zerrenda: lehengo urtean baino gehixeago aspertzen saiatuko naiz. ■■■

**"ASPERTZEAK BURUA
MARTXAN JARTZEN
DIGU ETA, SARRITAN,
ASPERRALDIAN IZATEN
DITUGU IDEIA ONENAK"**

Etixerako bidean, oztoporik ez!

Gregoriok datorren martxoan 21 urte beteko ditu preso, eta zigorra osorik betetzeko beste bederatzitaurretik. Horixeda, gaur-gaurkoz, aurrean duen errealitatearen hodeiertza. 49 urterekin atxilotu zutela eta 79 urterekin askatuko dutela, alegia. Espetxe legedi arrunta ezarri ordez, beste hainbat euskalduni bezala, euren kontra *ad hoc* asmatu salbuespen legedia ezarri diote 2002an atxilotu zuten geroztik.

Eta zer esan nahi du horrek? Gregoriok ia 20 urte pasatu ditu lehen graduan, espetxeratu zuten lehen egunetik bertatik hasita. Prebentiboentzako hamargarren graduan hasieran, eta zigortu ostean, lehen graduan, baina biak berdin-berdinak bizi baldintzei dagokienez. Inolako

progresiorako aukerarik eman gabe, hasieratik *de facto* ezeztatu zizkioten edozein presori bezala dagozkion hainbat oinarritzko eskubide.

Dudarik gabe, zigor gogorak ditu, baina zigor edo kondena orri bakar batek ere ez dio ezertxo ere urteotan, ia 21 urtez egunero-egunero ordainarazi dizkioten interesez. Interesak, kanpoan bizi garenok erraz ulertzeko moduko adibidea kartzela barruko opakutasunaz ari garenean.

**"URTARRILAREN 7AN
BILBON EGINGO DEN
MANIFESTAZIORAKO
GONBIDAPENA
LUZATU NAHI DIZUEGU"**

Gregoriok 30 urteko gehienezko zigorra dauka. Hortik aurrerako guzti-guztia, ordainarazi dizkioten interesak dira: urrunketa, komunikazioen murrizketa eta interbentzioa, isolamendu urteak... eta gradu progresiorako aukerak blokatzea.

Aitortzen dugu azken bi urteetan euskal presoena egoerak nabarmen egin duela hobera, eta inoizko baikorrena dela, nahiz eta iraganeko garaian ainguratutako indarrek jarraitzen duten aurrerapauso txikiena ere saboteatzen. Hortxe daukate kateatuta Gregorio. Orain, behintzat, bigarren graduan dago: patio ordu batzuk gehiago ditu, aktibitatearen bat gehiago ere bai... Baina datuak hor daude. 2002an atxilotua, 2010ean irteera baimenak eduki

HAUXE BAI JENEROA!



ahalko zituzkeen zigorraren laurdena beteta. Aspaldidanik hirugarren graduaren egon zitekeen, gutxira baldintzapean aske, eta horren ordez, Dueñasen dago, 310 kilometrora eta bigarren graduaren. Lehenago, Curtisen geratu zen azken euskal preso izan zen, Galizia osoan bakarra. Eta Dueñasen ere, bide bera darama. Dagoen egoeran jarraitzen badu, erabaki politikoengatik da. Eta hori salatu nahi dugu.

Orion indarkeriek eragindako biktimekiko eta euren senide guzti-guzti-guztien sufrimenduarekiko errespetu osoz, eta inoren bizitzako motxilan min gehiago pilatzeko asmorik gabe diogu: legea betetzeaz ari gara. Oriotar preso bati preso bezala dagozkion eskubideak errespetatzeaz, eta

berari buruz hartu beharreko erabakien oinarrian soilik irizpide tekniko-penitentziarioak egoteaz. Onartzea, behingoz, presoek emandako urratsak gatazka gainditzeko, eta baita bizikidetzaren aldeko konpromisoaren bilakaerari buruzko txostenak egitean ere (*corta-pega* hutsak askotan). Legea betetzeko, hori dena eta hori besterik ez da gure herrikide Gregoriorientzat eskatzen duguna. Nahikoa da, Gregorio etxera!

Horren guztiaren harira, euskal preso politiko guztiak etxera bidean jartzeko une garrantzitsu honetan, urtarrilaren 7an, Bilbon, 17:00tan hasita egingo den manifestaziorako gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

Etxerako bidean, oztoporik ez! ■■■

NIRE HONETAN



ONINTZA LETE ARRIETA

Zalantzak

Zarauztik Orioraka noa autoan, bakarrik, eta Argiñanoren eskola pare horretan norbait ari da auto-stop egiten. Gizonezkoa da, eta ez dut abiadura murriztu. Berak ere eskuarekin keinu egiteari utzi dio ni ikustean. Amorrua eman dit, laguntza eske dagoenari ezin diodalako lagundu; ez diodalako lagundu nahi. Izan ere, oroitzapenek, nahi gabe, denboran atzera naramate. Aurrena, 2011. urtera, Amaia Azkue hil zuten unera eta horrek sortutako beldurrera. Ondoren, pare bat urte lehenagora, lanerako autobusa galdu eta auto-stop egin nuenekora. Aizarnazabaldik Meaga gainera arteko tarte *eterno*a dut gogoan, nola joan nintzen ikara betean, agure zoro baten ondoan. Errietarainoko beldurra.

Une batez, ordea, auto-stopa egiten ari den gizonezkoaren larruan sartzea lortu dut. Nire beldurraren jakitun da, eta seguruenik, berak ere pena eta amorrua sentitzen ditu, ezin duelako ezer egin gudan beldur hori ez sortzeko. Segidan, inguruko gizonekin akordatu naiz; semearekin, batez ere. Hazi ahala, zer pentsatuko ote du gai hauetaz? Bera bezala, *pitodun* pertsonak diren munstro horiez? Zer transmititu behar genieke etorkizuneko gizoni? Erantzunik ez dut; soilik, zalantza horiek edukitzeko askatasuna. ■■■



@garbineubeda

BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Usurbil Autoak

**TXAPA - PINTURA -
MEKANIKA**

ESKATU AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

Aitezarra Kalea, 24, 20170 · Usurbil
943-36 10 79
usurbilautoak@gmail.com



**BODEGA
KATXIÑA**

Ortzaika, 20 · ORIO
943-58 01 66 · 606 36 76 93
www.bodegakatxiña.com · f i



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net

**ZINKU
ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

Zarautz

Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura

24 ordu zure zerbitzura Beilatokia ·
Lekualdatzeak · Eginbide guztien tramitazioa

ORAIN ABENDAÑON GAUDE
Urteta bidea 2, ZARAUTZ
943-89 49 37 · 943-42 21 29
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus



Sagardo denboraldiaren irekiera; **urtarrilak 14**
Zabalik asteazkenetik igandera

Deitu eta etorri!!
943-37 26 91 - 630 77 73 46

Urdairi baserria
Aginaga-Usurbil





Bizipenak helburu

ITHAKA MUSIKA TALDEA

Nola eta noiz sortu zen Ithaka?

Ithaka taldea modu guztiz informal batean sortu zen, klasean ginela, broma artean. Hasiere batean, musika egiteko gogoa genuelako soilik hasi ginen, *cover* batzuk eginez, gustuko genuena egiten.

Denborarekin, konposatzen hasi ginen, eta proiektua aurrera zihoala ikustean, kantak kaleratzeko erabakia hartu genuen. Horrela joan gara taldeari forma ematen, apurka-apurka.

Zergatik izena du zuen taldeak Ithaka?

Kavafis poeta grekoaren olerki bat da *Ithaka*. Olerkiak Ulisesek gerratik Ithakara egin zuen hogeituroko bidea kontatzen du, eta ondorio gisa, helmuga ez dela hain garrantzitsua azaltzen du, bidea baizik. Bidean ikasitakoa da bidaiaren helmuga. Poema gustatu zitzaigulako eta gure mezuarekin bat zetorrelako aukeratu genuen. Azken batean, gure helburua taldearekin ez da helmuga batera iristea, baizik eta bidean izandako bizipen guztiez ikastea eta disfrutatzea.

Noiztik duzue musikarako zaletasuna?

Egia esan, txikitatik. Oso arrunta dirudien arren, txikitatik izan dugu musikarako



zaletasuna, eta betidanik ibili izan gara Musika Eskolan.

Musika sortzerako garaian zein abeslari erreferente dituzue?

Hasiere batean, bakoitzak bere influentziak zituen arren, orain elkarrekin pasatako denbora guztiaren ondorioz, bide berdinean batera jotzea lortu dugu. Halere, oraindik bakoitzak bere influentzia pertsonalak ditu, baina hori ere beharrezkoa dela iruditzen zaigu, zalantzarik gabe. Bestalde, gure erreferente nagusi batzuk aipatzekotan, honakoak izango lirateke: Belako, Pixies, Lukiek...

Zer sentitu zenuen Gaztea Maketa Lehiaketan publikoaren saria jaso zenuenean?

Emozio eta babes handia sentitu genuen. Ez genekien horraino iristeko modurako babesa genuenik. Oso eskertuta gaude, bihotza beteta. Hemendik, hasieratik orain arte eskua zabaldu diguten guztiei eskerrak ematea gustatuko litzaiguke, baita gure doinuak entzuteko tartetxo bat hartu duten guztiei ere. ■■■

Gazteentzat ekintzak

Nire ustez Orioko festetan, eta baita orokorrean ere, Orioko gazteentzako, 12-18 urte bitartean ditugunontzat, ez dagoela ezer asko egiteko aukerarik. Egia da Gaztelekua dugula herrian, baina 8 urte eta 16 urte bitarteko gaztetxontzat da, eta 8 urteko ume batek eta 16 urteko gazte batek zaletasun oso desberdinak dituzte; gainera, eremua ere ez da batera handia.

Festetan beti umeentzako eta helduentzako ekintzak antolatu ohi dira, baina gazteok ez dugu guri zuzendutako ekintza bat bera ere. Behin baino gehiagotan saiatu izan gara umeen jardueretan sartzen, baina ezezkoa eman digute *zaharregiak* garelako. Hortaz, ondo egongo litzateke guretzat txoko edo lokala izatea edo, gutxienez, 12-18 urte arteko gazteentzako ekintzak antolazea, gure *espazio pertsonala* behar dugulako ekintzak egiteko, 8 urteko umeekin egon beharrik izan gabe. Badakigu festetan guretzako ekintzak egon daitezen udalak antolatzen dituen festa batzordean parte hartu behar dugula, eta horretan ari gara. Aurten parte hartu dugu lehen aldiz. Pixkanaka gure buruarengan konfiantza hartzea eta horrelako ekintzetan gehiago parte hartzea espero dugu, geuretzako izango baita lortuko duguna. ■■■



Garai bateko oroitzapenak

Oriok hazkunde demografiko handia izan du azken hogei urteetan, %38 hazi da biztanleria. Garai bertsuan, herria guztiz eraldatu da. Ezer gutxi geratzen da duela 25-30 urteko Ori hartatik. Eraldaketaren aurreko argazki sorta berreskuratu du KARKARAK.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**. Argazkiak: **Karkara**.



Hondartza ingurua

Datuek diote azken 20 urteetan %38 hazi dela Orio: 2001. urtean 4.427 biztanle izatetik 6.107 izatera pasatu da azken bi hamarkadetan. Herria haztearekin batera, goitik behera aldatu da Orio, eta bilakaera horren adibide argia da hondartza ingurua. Aurreko mendeko 90. hamarkadara arte, nahiko basatia zen hondartza, baina 1990eko hamarkada bukaeran eraldaketa handia gertatu zen, hondartza gainean

zeuden etxe eta txiringitoak bota eta malekoia egin zutenean. Kanpoko kai-muturra ere orduan egin zuten.

Oriotar askok gogoan izango dituzte hondartzako duna zelaiak *domingeroz* betetzen ziren garaiak; orduan ez zen TAO makinarik herrian, eta eskolako mahaitxoak autobide azpian jarrita kobratzen zieten hondartzarako sarrera bisitariei.

Goiko argazkian ikus daiteke lehengo hondartzaren itxura.

Behean, berriz, malekoia eraikitzeko egin zituzten obrak ageri dira. Argazkia 1998ko urtarrilaren 30ekoa da, eta uda hartan malekoi berria inauguratu zen herrian.

Hasieran, hondartza gaina izan zen aldatu zena, baina, pixkanaka, inguru osoa eraldatu zuen hirigintza proiektua garatu zen. Etxebizitzak eraikitzen hasi ziren, eta kirol portua egin zuten, 1990eko hondartzarekin zerikusirik ez duen ingurua sortuz.



Hondartzako futbol zelaia

Orioko Futbol Taldearen zelaia hondartzan zegoen garai batean, kanpinari itsasita. 2006an inauguratu zuten herrian Mendibeltz zelaia, eta denboraldi hasieran ekin zioten futbol taldeek bertan jokatzeari. Dena dela, herriko futbolari ohi askok gogoan dute hondartzako zelaia, gazte kategorietan belar naturala zuen bakarrenetakoa baitzen Gipuzkoan.



Kiroldegia

1990. hamarkadako bigarren erdian, goitik behera aldatu zen Orioko erribera. Ordura arte, Eusko Gudarien kaletik harago baratzak, palotak eta eskabexeria bakarrik zeuden, baina urte horietan eraiki zituzten Arrantzale kaleko etxe berriak –*Erriberak* bezala ezagunak–, baita kiroldegia ere. Argazkia 1998koa da, eta kiroldegia egiten hasi zirenean Ikastola ingurua nolakoa zen ikus daiteke bertan.



Tren geltoki ingurua

2010eko urrian inauguratu zen Aia-Orio tren geltoki berria, eta lanek zeharo aldatuta utzi zuten zubiaren bestaldeko itxura. Aurrez, errepidearen maila berean zegoen trenbidea. Aiako bidean, trenbide-pasaguneko barrera itxi egiten zen tren zetorrenean. Argazkia urte batzuk lehenagokoa da, 1990eko hamarkadakoa, zubi berria inauguratu zenekoa, eta gaur egun tren geltokia eta biribilgunea dauden eremua nolakoak ziren erakusten du.

Anibarko Portua

Anibarko Portua auzoan eraikin bakarra egon zen urteetan, eta plaza eder bat zuen aurrean, hurrek jolaserako erabiltzen zutena. Hala, inguruan etxeak egitea erabaki zutenean, auzotarrek protestak egin zituzten plaza bere horretan mantendu zedin, eta pintadak ere abertu ziren auzoan.



Baratzeak eta palotak

Gaur egun, gutxi dira 1990eko hamarkadan bezala mantentzen diren herriko gunek. Argazkian, saregileak agertzen dira palotetan, aulki txikian eserita, sarea josten, eta atzean, Kosta Tailerra eta Azkue Kontserben eraikina ageri dira. Palota ingurua lehenengo tankeran dago, baina eskabetxeria zegoen ingurua guztiz aldatuta dago, auzo modernoari egin baitio tokia.



Oriokoa, Oriorena eta zuretzat

Zaraguetak konfiantzan eta gertutasunean oinarritutako hezkuntza eskaintzen du, euskaran eta euskal kulturaren transmisioan errotua, eta Orion sustraitua.

Goxotasuna. Gertutasuna. Konfiantza. Euskalduna.

Gurasoek nabarmendutako eta errepikatutako hitzak dira, haiek eta haien seme-alabek Zaragueta Herri Eskolan jasotzen duten tratuari buruz. Gurasoen ohiko kezka izan zituzten etxeko lehen umea eskolatu behar zutenean, bai Olaia Manterolak eta Jon Ander Zalduak, bai Idurre Lizarralde eta Haritz Otañok. Zalantza guztiak uxatu zizkieten irakasleek, eskolako azpiegiturek eta zerbitzuek.

Urte batzuk geroago, pozik eta harro daude egindako aukeraz. "Ikasgelako harremana

goxotasunean oinarritzen da", nabarmendu du Manterolak. "Familia giroa da. Arreta, pertsonalizatua".

Irakasleak dira Lizarralde eta Otaño. Ikasgelako ume kopurua, goxotasuna eta arreta zuzena funtsezkoak izan ziren semea Zaraguetan eskolatzeko. Ez hori bakarrik. Baita eskolaren kokapena eta ingurua ere. Eskolan hondarra, belarra, egurrak... izatea. Eta natura oso gertu: "Hondartzatik gertu dago, parkean sekulako aukerak dituzte, eguraldi ona egiten duenean askotan ateratzen dira eskolatik...".

Manterolak gustuko du semearen ikasgelan jatorri eta arraza ezberdinetako haurrak egotea. Berari ez zitzaion halakorik egokitu, baina semeak aniztasun hori bizitzea nahi zuen: "Bera txikitatik barneratzen ari da guri erakutsi egin behar izan zigutena".

Seme-alabak joaten dira eskolara, baina gurasoek ere behar dute harreman gertukoa, zuzena eta konfiantzakoa eskolarekin. Ubera guraso elkarteko idazkaria da Idurre Lizarralde, iaztik. Eskolari eskertzen dio gurasoei eskaintzen dien aukera

ikastetxea eta gurasoak elkarlanean aritzeko eta gurasoen kezka entzuteko.

Eskola publikoa da Zaragueta. Eskola publikoko irakasleak dira Lizarralde eta Otaño. Eskolaren izaera ere izan zen aintzat hartu zuten ezaugarrietako bat. "Sistema publikoko langileak garenez, eta eskola publikoan sinesten dugunez, haren alde egin dugu", azaldu du Lizarralde. "Sistema publikoa egotea nahi badugu, gugandik eta gure erabakietatik hasi behar du".

Bi bikoteek dituzte oraindik eskolatzeko adinik ez duten seme-alaba txikiak. Ez dute zalantzarik. Zaragueta joango dira.

Mikel Lizarralde Zaragueta egin zuen derrigorrezko hezkuntzako ibilbide guztia. DBH Zaragueta egin zuten lehen ikasleetako bat izan zen. Zaragueta aipatuz gero, hitz onak baino ez ditu. Gurasoen moduan, goxotasuna aipatu du. Talde txikia zen haiena, 10-15 ikasle ingurukoa: "Askotan ez gara konturatzen, baina sekulako abantaila eta pribilegioa da halako arreta pertsonalizatua jasotzea. Harremana askoz ere zuzenagoa eta estuagoa da".

Autobus zerbitzua eta jangela erabiltzen zituen. Beharko: Santion bizi zen eta gurasoek lan egiten zuten. Eskertuta dago eskolak halako zerbitzuak eskaintzen dituelako, eta nabarmendu du ikasleen heziketa lantzen dela halako zerbitzuetan ere.

Batxilergo Zientifikoa egin zuen. Energiaren Ingeniaritza ikasten ari da orain, Oronan, Hernanin. "Zaragueta ikasitakoa oinarri oso ona izan da ikasketetan aurrera egiteko", Lizarralderen arabera. "Oso

ondo prestatuta aterata ginen, eta oso gustura nago jasotako heziketarekin".

Euskara eta euskal kultura dira Zaragueta eskaintzaren oinarriak. Curriculumean txertatuta dago Orioko Curriculum. "Eskolan euskara eta euskal kultura uztartuta ulertzen eta lantzen ditugu", argitu du Rikardo Uzkuadunek, DBHko Matematika irakasleak. Zergatik? "Alde batetik, etxeko transmisioan eten bat gertatzen ari delako, eta eskolak berdindu behar duelako; bestetik, azken

urteetan familia asko etortzen ari zaizkigulako beste herrialde batzuetatik".

Zaragueta komunitatea da kanpotik iritsitako askoren lehen harremana oriotarrek. "Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu bertakoak senti daitezen lantzea", jarraitu du Uzkuadunek. "Aurrena, eskolan: eskolaren parte sentitzen baldin badira, herriaren parte sentituko dira, eta horretarako ezinbestekoa da Orioko kulturaren eta euskal kulturaren hezea". ■



"Sistema publikoa egotea nahi badugu, gugandik eta gure erabakietatik hasi behar du"

IDURRE LIZARRALDE, ZARAGUETAKO GURASOA

"Ikasgelako harremana goxotasunean oinarritzen da. Familia giroa da. Arreta, pertsonalizatua"

OLAIA MANTEROLA, ZARAGUETAKO GURASOA



"Zaragueta ikasitakoa oinarri oso ona izan da ikasketetan aurrera egiteko. Oso ondo prestatuta aterata ginen"

MIKEL LIZARRALDE, ZARAGUETAKO IKASLE OHIA

"Eskolan euskara eta euskal kultura uztartuta ulertzen eta lantzen ditugu"

RIKARDO UZKUDUN, ZARAGUETAKO IRAKASLEA



Orioko mugarriak: Aia eta Orioren artekoak (I)



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Muga eremuek beti izan dute giro berezia, osagai askoren nahasketa: pasadizoak, topaketak, ihesak, txapelokerrak, arriskua, gatazka, abentura, kontrabandoa, istripuak...

Agertzen dira historia liburuetan eta baita literaturakoetan ere. Ematen dute zer kontatua. Euskal Herrian badira batzuk ezagunak: Hendaia-Irun, Zumarraga-Urretxu, Azpeitia-Azkoitia, Deba-Mutriku...

Zumaian herritar batzuek urtero txangoa egiten dute, mugarriz mugarri, historiako hainbat pasarte kontatuz. Orion ere makina bat kontu aterako lirakeke egun-pasa ederra egiteko. Horixe egingo dugu artikulu honetan: Orioko muga eremuez hitz egin eta hango istorioak azaldu.

Gipuzkoako udalerrietan txikienetakoa da Orio lurren zabalera. Hori bai, horren txikia izateko, ondo hornituta dago muga estu horien barruan: badu errioa, bi hondartza – Antilla eta Oribarzar–, mendi bat –Kukuarri–, bi ermita –San Martin eta San Juan (San Pablo Aiako partean dago)–...

Aia, berriz, handienen artean dago lurretan, Oñati eta Oiartzunekin-eta batera. Udalerri mugakide asko ditu Aiak ipar-mendebaldetik hasita:

Kantauri itsasoa, erriotik ia Mollarriraino, Zarautz, Getaria (Elkano aldean), Aizarnazabal, Aizarna (Zestoako udalerrian), Errezil, Asteasu, Zizurkil, Aginaga (Usurbilgo udalerrian) eta Orio. Zumaia metro batzuegatik ez da Aiaren mugakide.

Oriotarrak ere sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik bizi dira; baina zer herri ditu Oriok mugakide? Zein dira gure herriaren mugak? *Orio historian zehar* Marta Trutxueloren liburuan hauxe agertzen da: "Orioren mugak hauek dira: iparraldean, itsasoa; hegoaldean, Aiako herria; ekialdean, Donostia eta Usurbil; eta mendebaldean, Zarautz". Baina hori ez da guztiz horrela: Zarautz oso gertuko herria dute oriotarrek, baina ez da Orioren mugakide inon, Aia iristen baita itsasoraino bien artean.

Itsasoa, berriz, muga ere bada, baina askotan muga baino urruneko mundu berrietara abiatzeko ate irekia izan da marinel oriotar askorentzat; baita herritarren ihesbide ere, inoiz.

Non hasten da Aia? Non bukatzen Orio?

Non daude Aia eta Orioren arteko mugak zehazki? Non, mugarriak? Ibaia eta errioa, eta errioa eta itsasoa, bata non bukatu eta bestea non hasten den esaten zaila den bezala, Aia

eta Orioren arteko mugak ere lausoak dira leku batzuetan, errioko lanbroak ezabatu egiten ditu.

Azken urteotan Bidasoa ibaia azken muga bihurtu da hainbat migratzaile afrikarrentzat, Iparraldera pasatzeko ahaleginean, ibaiak irentsi ditu betiko. Orioko barran ere gertatu da hori, behin gutxienez, eta XXI. mendean izan da, polizia ihesi zihoan gazte batek Orioko hondartzako arroketatik erriora salto egin zuen ihesi, eta ez zen inoiz beste aldera ailegatu. Azken muga bihurtu zen Oria gazte afrikarrentzat.

Txurruka kanpalekuan zeuden mutil koskor batzuk ere eramane zituen korronteak itsasora, 1950eko urteetan; ito egin ziren, eta gero haien aldeko meza egin zen Orioko plazan. Barra lehen ere herriko arrantzale askoren hilobia izan da, nahiz eta han Karmengo Ama Birjina zegoen, arrantzaleei itsasorako eta lehorrerako gune eta une zailetan laguntza emateko.

Non dago Oribarzar alde horretan Aia eta Orio bereizten dituen muga? Azken San Nikolas eguneko bertso saioan, Unai apaizak jarritako gaian Andoni Egañak 22 kilo angula harrapatuta, ertzain batekin ari zela, esan zion, isunetik libratzeko: "Hau Oribarzar da ta, hemen Aian gaude". Baina

Egañak ez zuen arrazoi, Oribazarreko hondartza Orioda, Txurruka kanpalekua den bezala; handik gora hasten da Aia, ondoko baserriak Aiakoak dira.

Oribazarreko istorioak

Aiak bandera bat badu arraunean irabazia. Oribazar baserriko lau mutilek eskuratu zuten, bateletan: Modesto eta Gregorio Makazaga anaiek eta Pedro eta Juan Aizpurua anaiek. 1934an izan zen, eta kuadrilla Aia-Orio izenean aurkeztu zen. Estropada irabazita, bandera nora eraman? Mutilak, Oribazarrekoak izanda, aiarrak ziren; baina batela, arraunak eta tradizioa, Oriokoak. Aiak irabazi zuen lehia; batela eta arraunak erosita eskuratu zuen bandera.

Baina mugak ez dira denentzat berdinak. Elizari dagokionez, baserri horiek Oriokoak dira 1942tik. Torretxo baserriko Martzelino Agirresarobe *Torrotxo* Laurgaingo elizan bataiatua da (1941ean jaioa). Zortzi senideen artean zazpigarrena da. Ba, azkena, Joxe, Orion bataiatu zuten. Begi-bistako arrazoiak zeuden aldaketarako. Hauxe zioen Martzelinok: "Hik ba al dakik zer zen orduan baten bat hiltzen zenean hura kajan sartuta bizkar gainean Oribazarretik Aiako kanposanturaino eramatea?".



Aia eta Orio arteko muga, itsasotik Itzaoko erriberaraino, errio-ertzaren ondoan dago, baina Oribazarren eta Motondon sartu egiten da pixka bat.



1936ko gerra amaitu eta gutxira, kanpaleku hori eraiki zuen Falange espainiarrak Oribazarreko hondartzaren ondoan, mutil gazteei kutsu militarreko formazioa emateko.



Plai txikia, orain kirol portua dagoen eremuan. Guardia zibilen kaseta, arroketan. Orioko toki arriskutsuenetakoa izan da inguru hori historian.



Jesus Apellaniz pintoreak horrela margotu zuen gerra aurreko Orio, San Pablo ermitaren gainetik.



Estazio zaharraren eskilaren pean, Aia eta Orio bereizten ezkerrean.

Bada bide estu bat Oribarzarretik San Pablo ermitaraino menditik doana. Ez horren aspaldi arte huraxe zen bakarra. Han traktorearekin zebilela amilduta hil zen Jose Aizpurua Beristain baserritarra, 1985eko azaroaren 11n, 73 urterekin. Gurutze bat dago haren oroimenez Orio eta Aiaren arteko mugatik gertu dagoen bide horretan. Handik urte gutxira hasi ziren Oribarzar Oriorekin lotzen duen errepideko obrak, 1987an. Ordura arte hango baserritar batzuk arraunean etortzen ziren Oriora, batelean.

Istripuak esanahi bete eman zion mendiaren izenari: Mendibeltz. Izen horixe du Orioko futbol zelaiak ere. Mendi horren gainera etorri ziren 1911n Getariatik hango arraun zale batzuk, handik oriotarrei Kontxan irabazia zuten bandera erakustera. "Getariarrak zer zabiltzate Oriorekin tirrian?..." galdetu zien bertso sorta batean Gaztelu bertsolariak 1930ean.

Aia-Orio tren geltokia

Mugarri bat zubiaren ondoan zegoen, estazio zaharraren ondo-ondoan, geltoki berria egiteko bota zuten arte. Literaturak askorako balio du, arazoak leuntzeko, ulertzen zailak diren gaiak hobeto aditzeko. Horixe egiten du ipuin honek: "Garai batean, Oriaren ezker aldeko baserrietako jendeak ez zekien seguru nongoak ziren, Aiakoak edo Oriokoak. Modu bitxia asmatu zuten erabakitzeko: lasterketa egitea. Oriotik eta Aiatik aldi berean abiatuta, lasterkariek bat egiten zuten gunean ezarriko zuten mugarria.

MUGARRI BAT ZUBIAREN ONDOAN ZEGOEN, ESTAZIO ZAHARRAREN ONDO-ONDOAN

Oriokoak aldapa gora zuenez, zaldi gainean joango zen; aiarra, asto gainean. Eguna ailegatuta, itxaferoak eman zuten abiatzeko agindua. Zaldia ziztu bizian abiatu zen Orioko plazatik, baina zubia pasatuta estazio ondoko askan geratu zen ur edaten. Aiako astoa, berriz, poliki baina geratu gabe zetorren. Zaldiak, egarria aseta, abiatu nahi izan zuenerako, hantxe zen astoa, estazio ondoan".

Hori ipuina da, istorioa. Baina zer dio historiak? Oriok askotan izan ditu auziak mugako istiluengatik Aia eta Usurbilekin, eta, epai gehienak Orioren aldekoak izan dira. Hauxe da, labur esateko, erabaki ohi dutena: erriko ertzak bi aldeetan Orio dira, erriaren ezker aldean marea bizietan itsasgora ailegatu ohi den tokiraino da Orio. Horrek Oriori eman dio aukera beti hango etekin ekonomikoak oriotarrentzat izateko: arrantzan, zergetan, komertzioan, bidaiari eta abereen garraioan...



erreizten zituen mugarría, argazkiaren ezker-



XX. mende hasierako herri txikia, 2.000 biztanletik beherakoa. Erriko ertzeko etxe horien atzealdean dago muga.

1948 eta 1952 bitartean, 24 baserri hartzen zituen lur eremua Aiatik desanexionatu eta Oriora pasatzeko zorian egon zen: Oribarzar, Orioko Gaina, Altxerrierreka, Arratolaldea eta Santioerreka. Autodeterminazio-erreferendum moduko bat egin zuten eta, gorabehera batzuk tarteko, Aiako Udalaren administraziopean segitzea erabaki zuten.

Epaiak, sentimenduak

Baina, epaiak epai, mugak lausoa izaten segitzen du gai batzuetan. Gaur egun ere badira auziak. Orain autoak aparkatzeak ekarri du eztabaida, eta zenbait kasutan, sesioa. Santio, Andatza, eta Arratolaldeko bizilagun batzuen oraingo aldarrikapena da: "Badakigu gu Aiako herritarrek garelá, eta ez Oriokoak. Hala ere, mugan bizi garenez, gure errealitatea Orioko herritarren berdina da, guk bizitza Orion egiten dugu eta egunero gabilta autoarekin gora eta behera, oro har Orioko

zerbitzuak erabiltzen ditugulako: Ikastola, eskola, kiroldegia, erosketak, aisialdia...".

Arraunetxe Orion al dago? Batzuek diotenez, Aiak bi arraun klubak instalazioak ditu bere mugen barruan, Orioko eta Zarauzko klubena. Hala al da? Hala omen da.

Gero Motondoko padura zabala dator. Garai batean olidentarrak alan pasatzen ziren Ortzaitatik Motondora, hango beren lurak lantzera. XX. mendeko azken hamarkadetan oso eremu erakargarria izan da Motondo ekimen askotarako. Betelanak egitera ere iritsi ziren batzuk. Kanpina jarri nahi izan dute, industriaidea, arraun pista olinpikoa eta kirolarientzako urbanizazioa... Borroka politiko-soziala izan zen; ekologistak nagusitu ziren eta haiek lortu zuten padura bere horretan uztea, beste interbentziorik gabe. Gaur egun, herriko lekurik lasaienetakoa da.

Gertu, Donpernas izeneko portutxo bat dago putzu izkinan. *Don Pernandoren nasa* omen zen, Don Pedrorena zela dioenik ere bada. Nor ote zen Don hura? Izango zen norbait hura ere. Goraxeago, muga Oriok Aiarekin eta Aginagarekin egiten duen eremuan, erriko ertzeko tokirik berezietakoa dago trenbidearen azpitik sartuta: errikoaren ezkutuko leku misterioitsua. Ontzi zaharren hilerria da, Orioko arrantzale askoren ontzien pausalekua. Toki ederra da, eta baketsua. Handik trená pasatzen da, arraun ontziak ere bai, baina ez da inor gelditzen. Han natura nagusitzen zaio kulturari; eta muga eremua izanagatik, han ez dago arazorik, ez iskanbilarik ez gatazkarik. Orioko mapa topografikoaren arabera, Olaberrietako portua da.

Errikoaren beste aldean, gertu, Saikola dago, Sariko ola, Orio Aginagatik bereizten duen auzoa. Baina hori hurrengo KARAKARArako utziko dugu. ■■■

Urangaren azken txingarrak

65 urteak beteta, eta 44 urtez familiako jatetxean buru-belarri jardun eta gero, erretiroa hartu du Luis Mari Urangak. "Irrika handirik gabe, baina lasai" hasi du etapa berria, negozioa "esku onetan" laga duen ziurtasunarekin. Urteotan guztiotan Xixarion bizitako gorabeherak gogora ekartzeko tartetxoa hartu du.

Testua: **Aitziber Arzallus.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**

Ez dira asko izango noiz edo noiz Luis Mari Urangak (Orio, 1957) prestatutako otorduren bat dastatu ez duten oriotarrak. Eta zorte hori izan ez dutenek, usaindu behintzat egingo zuten haren parrillak isurtzen duen bisigu erre usaina. Lau hamarkadaz baino gehiagoz bera izan da Eusko Gudarien kalean barrena zabaltzen den eta edozeinen tripa zorriak dantzan jartzeko gai den usain tentagarri horren sortzailea. Edo, behintzat, sortzaileetako bat. Baina kito. 65 urteak beteta, eta 44 urtez Xixario jatetxean jardun eta gero, Urangak merezitako erretiroa hartu du.

"Ez daukat erretiroa hartzeko irrika handi-handirik ere", aitortu du jatetxea itxi bezperan, "baina erabakia hartuta dago; eguna jarriz gero, ailegatu egiten da, eta niri ailegatu zait". Pena pixka batekin, baina lasai doa, bai baitaki jatetxeak martxan jarraituko duela, eta baita esku onetan lagatzen duela ere. "Carlosen [Martinez] esku geldituko da negozioa. Hamabost urte daramatza nirekin lanean, 2007an Mexikotik etorri zenetik, eta erabateko konfiantza daukat berarengan; pentsa, neu naiz bere alabaren aitajauna ere. Parrillan aritzea gustatu egiten zaio, eta ederki moldatzen da, neu adina. Gainera, ez naiz urrutira joango; jatetxearen gainean bizi naiz, eta tarteka jaitsi beharra ere izango dut, lagunak-eta etorriko baitira".

Urangak 44 urte egin ditu Xixarioren gidari, baina horiek baino urte gehiago ditu jatetxeak. "Negozioa aitik zabaldu zuen 1966an, eta gurea, nirea eta Ramon anaiarena, bigarren belaunaldia izan da". Aita, Xixario Uranga, baxurako arrantzalea zuten, eta halabeharrak, edo



**"GETARIAN ERE
BADAKITE ARRAINA
PARRILLAN ERRETZEN,
BAINA BISIGUA, ORION
BEZALA, INON EZ"**

**"PENTSA,
GETARIARREK ERE
JENDEA ORIORA
BIDALTZEN DUTE
BISIGUA JATERA"**

familiaren indarrak, bultzatu zuen jatetxea zabaltzera. "Behin, itsasoan zirela, sekulako itsasaldiak harrapatu zituen. Baporea hondoratu egin zen, baina aita onik atera zen. Ama asko izutu zen, eta direnak eta ez direnak egin zituen aitak itsasoa utzi eta lehorrean negozio bat jar zezan. Azkenean, konbentzitu egin zuen eta jatetxea zabaldu zuen".

Luis Mari gazterik hasi zen jatetxean lanean. "16-17 urte nituela, udan-eta aitari laguntzera etortzen nintzen, baina, gero, soldadutzara joan beharra izan nuen. Handik bueltatu nintzenean, aitak berehala esan zidan jatetxean lana bazegoela eta hasteko bertan, eta halaxe hasi nintzen 1978aren bukaeran". Harrezkero, ez du besterik ezagutu. "Hemen jardun dut beti; sekula ez dut beste lanik egin izan, eta sekula ez dut jatetxea uzterik pentsatu. Ez dut gezurrik esango, denetarik izan dugu, izan ditugu garai hobeak eta izan ditugu okerragoak ere, baina, oro har, gustura aritu naiz eta gustuko ofizioa izan dut". Urte luzez, anaia Ramon eta bien artean gidatu zuten negozioa. Anaia 2012an hil zitzaion, eta haren emazteak hartu zuen lekukoa, duela bi urte erretiroa hartu zuenera arte. Orduetik, Luis Mari izan da lemazain bakar.

Aldaketen lekuko zuzena

Eusko Gudarien kaleko bigarren zenbakitik, herriak azken hamarkadetan jasan dituen aldaketen lekuko zuzena izan da Luis Mari, eta aldaketa horiek, era guztietakoek, zuzen-zuzenean eragin diote etxeko negozioari ere. "Herria ikaragarri aldatu da. Hemen pareko errepidean sekulakoa izaten zen ibilgailuen joan-etorria. Errepidearen beste aldean mahaiaak jarrita izaten genituen guk, eta baita atearen eskuinetara dauden eskailera horiek igota ere. Oraindik gogoan dut Ostiral Santu batez nola egon ziren hogeitik gora lagun eskailera horietan eserita, mahairen bat noiz libratuko zain; 16:30ak jota, eta artean egundoko ilara. Orain 13:30etik 16:00etara ematen ditugu bazkariak eta kito, baina lehen ez zen ordutegirik izaten".

Bezerian ere izan dira aldaketak. "Lehen, herrikoak ziren bezerorik onenak. Arrantzale asko zegoen eta arrantzaleek eskuartean dirua izaten zuten, lehorrekoek baino gehiago. Ohikoa izaten zen ostiraletan edo larunbatetan afaria egin eta gero diskotekara joatea, Txirlara edo beste nonbaitera. Orain, berriz, gehiago etortzen da kanpokoak, herrikoa baino". Urtean zehar izaten dituzte jangela oriotarrez betetzen zaien egunak, baina "egun puntualak" izaten dira. "Etortzen dira ospakizunen bat dutenean, kanpoko norbaiti herria erakusten ari direnean eta ondo jan nahi dutenean, eta festetan. Sanikolasetan eta sanpedroetan bai, horietan herriko jendez beteta izaten dugu jatetxea. Bestela, astero izaten dugu herrikoren bat, baina ohikoa ez da asteburu arrunt batean jangela herrikoz betetzea".

Kanpotarrak ugari bai, baina nongo kanpotarrak galdetuta, boladak izan direla erantzun du; adibidez, garai batean, Goierri aldeko jendeak Oriorako joera handia zuela. "Eguraldi ona egiten zuen igandeetan, Goierriko jende asko etortzen zen Orioko hondartzara, eta 19:00ak alde horretan, denak batera etortzen ziren afaltzera. 35 bisigu batera izaten nituen parrillan. Entsalada eta bisigua janda joaten ziren etxera, bapo afalduta". Urrutiagotik ere etortzen zen jendea, batez ere, udan. "Urtean zehar, gehiena hemengoa izaten zen, baina uda partean, kanpotarra. Batez ere Madrildik eta Kataluniatik etortzen zen, eta

italiarra ere ikaragarri. Zarautzera etortzen ziren oporretara, eguna hondartzan pasatzen zuten, eta gero, ondo jantzi eta Oriora afaltzera. Azken urteotan, italiarra desagertu egin da, eta lehen italiarra bezala, orain frantsesa etortzen da".

Dudarik gabe, bisigua izan da eta da Xixarioko produktu izarra, parrillan erretako bisigua, Orioko erara. "Beste arrain batzuk ere eskaintzen ditugu kartan: mihi arraina, zapoa, legatza... Baina Oriora datozen hamarretik zortzi bisigua jatera etortzen dira.

Pentsa, getariarrek ere jendea hona bidaltzen dute bisigua jatera; bezero bat baino gehiago etorri izan zaigu Elkanokoek edo Kaiakoek gomendatuta. Eta ez han arraina prestatzen ez dakitelako, Getarian maisuak dira arraina parrillan erretzen eta kategoriako arraina jan daiteke hango jatetxeetan; baina bisigua, Orion bezala, inon ez.

Gaur egun, ordea, produktu izarra ez ezik, luxuzko produktua ere bada bisigua. Juan Marik berak baieztatu du hori, eta baita beti ez dela horrela izan ere. "Bisigu kiloa 27 pezeta ordaindutakoa naiz ni, eta orain, azkena ordaindu dut kiloa 57 euro gehi BEZ; alegia, 63-64 euro. Gero, jatetxean saldu dut kiloa 92 eurotan; lotsa ematen didalako gehiago kobratzeak. Izugarria da, 27 pezetatik 92 eurora, atera kontuak zer-nolako aldea dagoen".

Prezioa prezio, bisigu gosez bertaratzen zaizkie bezerorik gehienak, eta horien artean, aurpegi ezagun asko, eta oso ezagunak ere bai zenbait. "Orain dela gutxi hemen izan genituen Cristina Pedroche telebistako aurkezlea eta bere senarra, David Muñoz sukaldaria, eta ez da denbora asko Jorge Fernandez arrasatearra etorri zela ere, *La Ruleta de la Suerte* telebista programaren aurkezlea. Gainera, propaganda polita egin zigun Fernandezek. Itxura denez, txikitik aitarekin hona etortzeko joera zuen, eta halaxe kontaktu zuen telebistan: badela Donostiaren alboan herri txiki bat Orio izeneko, eta herri horretan jatetxe bat Xixario izeneko, bera aitarekin etorri ohi zela txikitik, eta hemen bezalako bisigurik sekula ez duela inon jan izan. Eta horietaz gain, aktore ezagunak ere asko etorri izan dira, batez ere, Donostiako Zinemaldiaren garaian; esate baterako, John Malkovich bera".

Hala ere, Luis Marik maitasun handiagoz gogoratzen ditu urteotan herritar arruntekin bizi izan dituen pasadizoak, eta horietako bat kontatuz bukatu du hizketaldia: "Jatetxean mahai luzeak izan ditugu beti, elkarrekin gastronomikoetan egon ohi diren bezalakoak, eta ezagutzen ez direnek ere elkarren ondoan eserita bazkaldu behar izaten dute. Batzuei agian deserosoa egingo zaie hori, baina badira hemen elkarren ondoan esertzea tokatu, bazkaldu eta gero elkarrekin tragoa hartzera joan, eta handik urteetara ezkondu eta etorri zaizkidan bikoteak. Hori baino gauza politagoak, gutxi". ■■■■



Luis Mari Uranga, bisigua eskuetan duela, Xixario jatetxean.

Aldapeko Rosaren testamentua Orioko herriari



XABIER LIZASO

Joan den azaroaren 26an zendu zen gure Rosa Arruti. Rosa Aldape, askorentzat. Niretzat emakume maitagarria zen; baina ez da idatzi honen helburua haren izaera azaltzea, baizik eta haren testamentua, Orioko herriari oparitu nahi ziona. Rosarentzat dirua ez zen lehentasun. Pertsona sakona zen; eta 2004an oso proiektu ederra jarri zuen martxan, bere izaerarekin bat egiten zuena. Non eta etxeko garajea, Steve Jobs-en antzera. Zer eta Done Jakue bideko erromesentzako aterpetxea: San Martin Aterpetxea.

Lehenengo urtean 20 erromesek hartu zuten ostatu han. Urte gutxira, 1.000 izan ziren. Azken urteotan Oriotik urtean 11.000 erromes inguru pasatu badira, 4.000 izan dira aterpetxean lo egin dutenak. Lo bakarrik? Ez, gure kulturarekin lehen kontaktua izan dute; gure izaera, ohiturak eta bizimodua ezagutzen hasi; eta euskarazko hitz gutxi batzuk ikasi ere bai. Hori dela eta erromes asko izan dira bueltan Oriora etorri direnak.

Rosak Orioko herriari oparitu nahi izan dio bere lanarekin sortutakoa. Garbi ikusten zuen Orioko herriarentzat aukera zoragarria dela aterpetxe publiko bat izatea bertan. Ez du dirurik ematen, baina ezta zulo ekonomikorik sortzen ere. Bere burua mantentzen duen proiektua da gaur egun. Baina oreka ekonomiko hori erraz gal daiteke. Bideragarritasuna lortzeko lan asko egin behar da; baina galtzeko, nahikoa litzateke aterpetxerik gabe bi urte pasatzea. Zergatik? Ba, erromesek ez dutelako aukeratuko kostako bidea Santiagora joateko. Ikaragarri garestia da, gure hoteletan lo egin behar badute. Kostako bidea, Oriotik pasatzen dena, gutxi erabiltzen zen 2004an. Kostata bihurtu da bide ibilia. Lan asko egin behar izan dute Rosak eta bera bezalako beste batzuek. Zenbat istorio ezagutu dituen aterpetxeak... Egun batean, esaterako, gizon bakarti bat ailegatu zen ostatu eske. Ez zuen inorekin hitz egiten. Baina, halako batean, zera esan zuen: "*Tengo que pedir perdón*". Gizona andaluziarra zen. Itxuraz, euskaldunoi gorrotoa zigun, eta aitortu zuen bidean, Euskal Herriatik pasatzean, euskaldunek eman zitela ordura arte sekula jaso ez zuen tratua ona.

Ni Rosaren laguna nintzen, baina herritar bezala idazten ari naiz hau. Oriotarra naizen aldetik, ez nuke galdu nahi Rosa eskaintzen ari zaigun aukera. Ez dugu galtzen utzi behar Orioko aterpetxea. Rosak etxeko lanak jarri zizkigun bera hil aurretik pertsona batzuei: niri, bere hiletan zer musika jo behar nuen; Unai Manterola apaizari, hiletan zer esan behar zuen; eta Aldape ondoko Etxeberriko Anuskari, aterpetxea herriaren eskuetara pasatzea. Orain, erabaki behar dugu Orioko herriak Rosaren testamentua onartu edo ez. Herritarrok eta herriko politikariek etxeko lanak ditugu. Bitartean Rosak bidean segiko du, betiko bere irribarrearekin. ■■■

**"ORIOTARRA NAIZEN
ALDETIK, EZ NUKE
GALDU NAHI ROSA
ESKAINTZEN ARI
ZAIGUN AUKERA"**

Beharrezkoa da Euskaraldia



TESTUA: MIRIAM GARCIA

Euskararen urtea izango zela esanez hasi genuen 2022a. Eta horrela izan da: Korrikarekin abiatu genuen urtea, eta Bertso Txapelketa Nagusiaren final ederrarekin eman diogu amaiera. Eta, tartean, Euskaraldia izan dugu. Baliteke, beste bi egitasmoekin alderatuta, ez izatea horren bistosoa. Baina, horregatik ez du besteek baino garrantzia txikiagoa; izan ere, bistosoa izatea ez da bere helburua, oso barneratuta dauden arau sozialetan eragitea eta horiek aldatzea baizik.

Euskaraldiak eman eta utzi duenari begira hasteko garaia dugu orain. Ilusioak aparra galdu duela esango dute batzuek, hirugarren edizioa dela eta. Eta ez dira erabat oker ibiliko. Baina, beste prisma batetik begira jartzen bagara, Euskaraldia normalizatu eta finkatu egin dela ere esan genezake.

Datuei begira jartzen bagara, parte hartzea zertxobait jaitsi da Aian eta Orion, baina ezer larririk ez. Euskaraldian parte hartzea egonkortze bidean dagoela ikusi dugu hirugarren edizio honetan. Orokorrean, Euskal Herri mailan, aurreko edizioaren parte hartze mailan gaudela esan dezakegu. Hori

bai, pertzepzioa dugu, jendeak ez dituela txapak uneoro erabili, eta nahi baino txapa gutxiago ikusi ditugula kalean.

Milaka lagunak erronkak jarri dizkiete beren buruei, eta erronka horiek lortzen saiatu dira hamabost egunetan zehar: batzuek beteko zituzten beraien asmoak, beste batzuek ez zuten lortuko, baina modu kontziente eta hausnartuan eginik, aurrerapausoak eman dituzte.

Baliteke zenbaitek pentsatzea Euskaraldia arnaguneetan ez dela beharrezkoa. Baina, kalera irten eta zenbat jende entzuten dugu gaztelaniaz, euskaraz badakitela jakinda? Ni neu ere, familiarekin dudak gaztelaniarako joeraren kontra borrokan aritu naiz 15 egunetan, eta oraindik borrokan ari naiz. Horretxegatik da hain beharrezkoa.


Horrez gain, sarritan ez gara kontziente eragin dezakegun guztiaz. Zenbatek egiten dugu ingurune erdaldunetan lana? Zer gertatzen da gure

"EUSKARALDIAN PARTE HARTZEA EGONKORTZE BIDEAN DAGOELA IKUSI DUGU HIRUGARREN EDIZIOAN"

egunerokotasuneko eremutik irteten garenean? Garrantzitsua ez da euskaraz bizi garenekin horrela jarraitzea soilik, konfort egoeretatik irteten garenean hizkuntzari eusteak ere asko eragin dezake elkarrizketan.

Ez nuke amaitu nahi batzordeen lanari aitortza egin gabe. Herrietako batzordeak dira eta Euskaraldiaren bihotza, horiek gabe ez legoke ariketarik. Ez legoke arigunerik, *belarriprestik* ez *ahobizirik*. Eskerrak eman nahi dizkiet Aian eta Orion batzordeetan lanean aritu diren herritarrei, nire dinamizatzaile lana errazagoa egin dutelako. Zailtasunak zailtasun, beste behin ere, Euskaraldiari forma eta bizia emateagatik. Bejondeizuela!

Orain bai, bukatzeko, atzera begira jarriko naiz: Euskaraldiaren lehen edizioan, 2018an, koordinazio orokorrean egin nuen lan, komunikazioan. Gogoan dut garai hartan genituen ilusioa eta urduritasuna, lana egiteko gogoia eta ariketa ondo irteteko nahia. Ilusio hori ingurukoei kutsatzen genien. Aurtengo edizioan ilusio hori falta izan dela egia da, apalago joan da dena. Eta hain justu, horretxegatik da hain beharrezkoa Euskaraldia. ■




Lotu azeri bakoitzari bere benetako itzala.



Bost eta bat?

Elementu hauen artetik gehienak hiruzpalau aldiz ageri dira, baina ugariena, berriz, bost aldiz ageri da. Zein ote da? Txantxangorria? Gorostia? Izei hostoa? Azeri-buztana? Bestalde, bada beste elementu bat soilik behin ageri dena. Jabetzen al zara?

Sudokua



		Z	E		
E	2			I	A
	R			E	
	Z			R	
R	A			Z	E
	E	I	R		

Zer dugu sudoku-taularen gainean? Bada, 2 azeri. Hain zuzen, erantzun horrek dituen hizkiak baliatu beharko dituzu sudokua osatzeko (2, A, Z, E, R eta I).



Aurkitu bi pinguinoen arteko aldeak. 11 dira guztira.

Baietz HamaiKa!



Bakoitzari berea



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

						.	,	!	?

Mezu ezkutua

Klima aldaketak aztoratu egin du toki hotzetako fauna, eta bereziki gure pinguinoak. Hala ere, zentzuzko esatera zahar bat hartu dute biek ahotan. Zein da? Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia eta asmatuko duzu.



Irudi engainagarriak

Zati hauen artetik erdiak (4) irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak ez. Berez itzazu. Bide batez, margotu ezazu irudi nagusia.

Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.es/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko Kalen. Tel. 690 27 28 42.

Pisua partekatzen prest nago, alokairu kontratua-ekin. Seriotasuna eskatzen dut. Tel. 666 62 22 51.

Euskal Herrira euskara ikastera etorri naizen irakasle madrildarra naiz. Negu parterako pisua alokatuko nuke Orion, niretzat bakarrik. Pertsona arduratsua naiz. Harremanetarako: 686 82 90 36 (Patricia)

LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Tel. 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketara lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketara egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasanari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketara edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Tel. 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Tel. 695 37 82 60 Estrella Reyes.

Emakume arduratsua naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak egiteko prest nago, baita adinekoak zaintzeko ere, egunez zein gauez, barneko zein kanpoko langile bezala. Jatetxe batean ere lan egingo nuke.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Adinekoak zaintzen esperientzia dut eta horretarako beharrezko titulua dut. Tel. 666 62 22 51.

Adineko pertsonak zaintzeko prest dagoen emakumea naiz, eta berehala lanean hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa dut, eta sei urteko esperientzia zaintza lanetan: jaten ematen, medikazioak, higieena, postura eta fardel aldateta.... Orion bizi naiz eta paper guztiak legeztatuta ditut. Tel. 631 44 12 51. Neriz.

Orion bizi den emakumea naiz eta adinekoak zaintzen lan egin nahi nuke. Titulu soziosanitarioa dut, eta eskarmentu handia du adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen. Paper guztiak legeztatuta ditut eta berehala hasi naiteke lanean; prestutasun osoa dut. Tel. 631 01 72 28. Nerlin.

Emakumea orduka etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia dut zeregin horietan eta titulu soziosanitarioa daukat. Aurretik egindako lanen erreferentzia onak ditut. Tel. 612 57 03 45.

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko emakume euskaldun eta esperientziaduna eskaintzen da. Tel. 622 93 97 39.

LAN ESKAINTZA

Urdairan txotx sasoiari lan egiteko zerbitzari eta sukalde laguntzaile behar ditugu, Urtarrilaren 14tik, maiatzaren 14ra. Harremanetan jartzeko tel. 619 40 36 91. Email-a urdaira@urdaira.com.

Gizarte Zientzietako batxilergoa egiten ari den ikasle bati errefortzu eskolak emateko pertsona baten bila gabilta. Interesa dutenek deitu hurrengo telefono zenbakira: 661 33 11 13.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte asegurua ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorrek salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	04:57 eta 17:33	11:26	☉
2	06:04 eta 18:32	00:05 eta 12:29	☉
3	07:02 eta 19:23	01:01 eta 13:24	☉
4	07:53 eta 20:07	01:48 eta 14:10	☉
5	08:38 eta 20:46	02:29 eta 14:51	☉
6	09:17 eta 21:23	03:06 eta 15:27	☉
7	09:54 eta 21:58	03:40 eta 16:01	☉
8	10:29 eta 22:31	04:12 eta 16:34	☉
9	11:02 eta 23:04	04:45 eta 17:06	☉
10	11:35 eta 23:38	05:17 eta 17:39	☉
11	12:09	05:52 eta 18:14	☾
12	00:14 eta 12:45	06:26 eta 18:53	☾
13	00:53 eta 13:26	07:08 eta 19:37	☾
14	01:37 eta 14:13	07:54 eta 20:29	☾
15	02:30 eta 15:10	08:49 eta 21:33	☾
16	03:34 eta 16:17	09:56 eta 22:44	☾
17	04:46 eta 17:28	11:12 eta 23:53	☾
18	05:57 eta 18:34	12:25	☾
19	07:03 eta 19:32	00:56 eta 13:28	☾
20	08:01 eta 14:24	01:51 eta 14:24	☾
21	08:54 eta 21:14	02:43 eta 15:15	☾
22	09:44 eta 22:02	03:32 eta 16:04	☾
23	10:33 eta 22:49	04:21 eta 16:51	☾
24	11:20 eta 23:35	05:08 eta 17:37	☾
25	12:06	05:56 eta 18:23	☾
26	00:22 eta 12:53	06:44 eta 19:10	☾
27	01:10 eta 13:41	07:32 eta 19:59	☾
28	02:01 eta 14:33	08:25 eta 20:56	☾
29	03:00 eta 15:33	09:26 eta 22:06	☾
30	04:11 eta 16:46	10:41 eta 23:25	☾
31	05:32 eta 18:02	12:02	☾

FARMAZIAK-URTARRILA

ZARAUTZ

6 eta 10.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
1, 21 eta 22.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
5, 11, 12, 17, 19, 23, 26 eta 31.	GALLO: Zigordia kalea, 17 / 943-13 40 19
9, 28 eta 29.	GAMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
15.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
3, 13, 14, 16 eta 25.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
2, 4, 18, 20 eta 27.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
24 eta 30.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
7 eta 8.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

AIA

URTARRILAK 3, ASTEARTEA

Emanaldia: Zirku saioa, familian.
Probalekuan, 17:00etan.

URTARRILAK 5, OSTEGUNA

Ikuskizuna: Ekain pailazoaren *Aho Bete Hortz*.
Probalekuan, 12:00etan.

Erregeen karteroa

Probalekuan, aurreko saioa bukatutakoan.

URTARRILAK 7, LARUNBATA

II. Pala Txapelketa Mistoko finalak.
Pilotalekuan, 18:00etan.

URTARRILAK 14, LARUNBATA

Kontzertua: Belako.
Probalekuan, 22:30ean.

URTARRILAK 21, LARUNBATA

Antzezlana: *Lehendakari gaia*.
Probalekuan, 22:30ean.

ORIO

URTARRILAK 5, OSTEGUNA

Errege Magoen desfilea.
Herrian barrena, 18:00etan.

Oharra: Orioko Udalak 2023 hasieran jakinaraziko du urtarrileko egitaraua.

Sagasti
LEIHOAK
Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orrio

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com

bertako-REKIN BAI!
Igoailuak | ascensores

DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA
943 903 450

www.bertako.eus

Puntua jarrita

Bertsolaria: Ganix Sukia.
Doinua: Gazteak Lizargatez.

1
**Urte berri bat dugu
bi mila hogeita hiru,**
Olentzero lanean
nekatu egin zaigu.
Mari Domingirekin
deskantsatu nahi du,
eta orain erregeen
oparien zai gu.

2
Galderatxo bat Meltxor
Gaspar ta Baltasar,
nola iristen zarete
denera hain azkar?
Etxe pila bat daude
mundutikan zehar,
iristeko denbora
gelditu egin behar.

3
Opari eske nator
ta arreta jarri,
kainabera Meltxorri
pita Baltasarri.
Zoriontasun gehiago
denentzat Gasparri,
presak eraman eta
denbora ekarri.

Hurrengo bertsolaria:
Eñaut Amenabar.
Puntua:
Arraunean Oriok
zenbat Kontxa ditu.

Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Ganix Sukiari jarri diote puntua Ibai eta Uhaitz Munduatek: "Urte berri bat dugu bi mila hogeitairu". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



IZAN IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

KARKARA

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Alderdia

